



## **BIRAKA!**

Duela 27 urte hasi zen Txinkoren historia honaino iristea esku artean dugun oparia bidean gogor saiatutako familia eta irakasle haur guztiak eskolatzeko herritik atera gabe.

Belaunaldiz belaunaldi  
herriko neska mutilek jasotako hezkuntzaren alde.

**BIRAKA!**  
herri txikien zutabe  
**BIRAKA!**  
koloretako eskuak emanaz  
**BIRAKA!**  
hezkuntza parte-hartzaile  
**BIRAKA!**  
jarraituz eskola txikien alde.

Borondatea eta ilusioa hainbeste jendek jarria biak batera indartzeko asmoz eskola eta herria oraindik ere martxan dihardu esku anitzen gurpilak jarraipena izan dezan urtetan egindako lan pilak.

Belaunaldiz belaunaldi  
herriko neska mutilek jasotako hezkuntzari eutsi.

**BIRAKA!**  
herri txikien zutabe  
**BIRAKA!**  
koloretako eskuak emanaz  
**BIRAKA!**  
hezkuntza parte-hartzaile  
**BIRAKA!**  
jarraituz eskola txikien alde.

Ekainaren 8an  
hartu behar dugu parte  
zahar eta gazte  
Bidania-Goiatzera  
gonbidatuta zaudete!

**BIRAKA!**  
herri txikien zutabe  
**BIRAKA!**  
koloretako eskuak emanaz  
**BIRAKA!**  
hezkuntza parte-hartzaile  
**BIRAKA!**  
jarraituz eskola txikien alde.

